

## Hizkuntza, askatasunaren giltza

*Deia*, 1984-09-30.

Unamunori Bilboko Udalak eskeini berria dion omenaldia ederra izan da: bat, bilbotar idazle eta pentsalari ospatuari bere jaioterriak honelakorik aspaldi zor ziolako; bi, gizon handi eta kontraesale honek euskara eta Euskalerriaz esan zituenak kontrastatzeko une egokia izan delako.

Eta hau, 1901an lore-joko sonata haiek antolatu ziren Bilbon bertan.

Lehenengo puntuaz, demokratikoki aukeratua izan eta gehiengoa Sabino Aranaren EAJ/PNVek duen udalak eskaini dio Unamunori harrizko oroitzarri ederra; norik esan hau orain laurogei urte!; eta, bigarren, lore-jokoak ospatu zirenetik urte hauek iragan eta gero, hobiratua egon behar lukeen Euskara inoiz baino arnasketa biziagoarekin dator behetik, haurrengandik, gora helduetaraino.

Bilbo bera lekuko.

Askotan gai honetaz kezkatuta gabiltzenok atzeranzko begirada honek arnasberritzen gaitu.

Euskara baita gure Aberriaren giltza.

EAJ-ak, sortu zenetik jakin du hau, gaurko dei hau oso beharrezko izan badu ere.

Hizkuntzaren balioaz irakurri dutan gauzik polit eta ukigarrienetako bat, Alphonse Daudet idazle frantsesari irakurri diot. Lehenengo mundu-gerratean Alsaziako eskola batean gertatutakoa kontatzen du ipuin zoragarri batetan: alemaniarrek ba zetozten; alemanera eta guzti, noski; irakasle frantsesak, herria utzi aurretik haurrei eman zien azken eskolegunean esan zien: "prantsesera, munduan den hizkuntzarik ederrena, argiena eta sendoena dugu; gorde ezazute zuen artean, ez inoiz ahaztu, zeren herri bat beste baten mende erortzen denean ere, hizkuntza gotorki gordetzen badu preso dauden espetxeko giltza berekin du.

Euskalerrian inposatu diguten hizkuntza, bai prantsesa, bai gaztelera, ez litzateke aberastasun bat besterik izango, hau sarrerezterakoan, gurea bortxaz, indarkeriaz, atara izan ez baziguten; baina biak egin dizkigute. Denok dakigu gertatua: izan dira gure artean heriotzaren kanpaiak jotzen aritu diren semeak, baina baita ere bihotzean ondo gorde duten batzu ere.

Frantsesak, frantsesera eder eta sendotzat edukitzea normala da, baita espainolak gaztelera ere; baina geuk ere beste hainbesterako burua eta bihotza ahoan erakustea ez da milagro.

Gure indartsu bizi den artean, gurekin dugu askatasunaren giltza.